La Encuesta de Necesidades y Demanda de Vivienda en la C. A. de Euskadi 2008 refleja asimismo que un 4,9% de los hogares vascos tienen necesidad de cambiar de vivienda –unos 40.900–, mientras que algo más de uno de cada siete, el 15,5%, indican que su vivienda necesita de algún tipo de rehabilitación que supera los 3.000 euros de presupuesto.

Por Territorios Históricos y refiriéndonos exclusivamente a las personas con necesidad de acceso a una primera vivienda, la evolución en el último año es la siguiente: en Bizkaia de 2007 a 2008 se contabiliza una caída de la demanda de primera vivienda de un 15,7%, siendo de un 11,5% en Álava y manteniéndose en Gipuzkoa.



Diru-sarrerak dituzten 18 eta 44 urte bitarteko arabarrek 10.900 etxebizitza eskatu dituzte 2008an – 2007an baino 1.400 gutxiago–; bizkaitarrek, 39.000 –7.200 gutxiago– eta lehenengo etxebizitza behar duten gipuzkoarren kopurua aurreko urtekoaren antzekoa da: 24.000. Lehenengo etxebizitzaren bila dabiltzan hiru eskatzailetatik bi pasatxok gurasoekiko emantzipazioa jarri dute arrazoi gisa –%69,1–, eta ez dira heren batera iristen –%27,6– lehenengo etxebizitza ezkontzeko edo bikotekidearekin bizitzeko bilatzen dutenak.

Eskuratzeko kolektiboaren etxebizitza-eskariari dagokionean, %68k 4 urteko epean eskuratzeko aukera ikusten dute, eta %32,7k bi urteko epean.

Etxebiden (etxebizitza-eskatzaileen erregistro ofizialean) 96.153 eskatzaile daude erregistratuta (2009ko urtarilaren 1ean).

Diru-sarrerak kontuan hartuta, eskatzaileen %63,5 22.000 euroren azpitik gelditzen dira. Eta %23, 22.000 eta 35.000 euro bitarteko tartean.

Eskuratzeko erregimenari dagokionez, azalera eskubidepeko etxebizitzaren eskaria handiagoa da (%77), nahiz eta alokairuko eskari-kopurua ere garrantzitsua izan (%61,9). Eskatzaileen kopuru handi batek bi erregimenak eskatzen ditu (%38,9).

Kupoen arabera eskarien banaketak erakusten duenez, erdiak baino apur bat gehiago 35 urtetik beherakoak direla (%51,8), laurden bat edo kupu orokorren sartzen dira, eta zati garrantzitsu bat 4 urteko antzinatasuna duten kupokoak dira (%17,5). Gainerako eskariak honela banatzen dira: guraso bakarrek familiak (%4,9) eta ezintasunen bat dutenak (%0,7).

## B2) ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO BEHARRA ETA ESKARIA

2008an zehar, %13,5 igo da etxebizitzak birgaitu edo berriztatu beharra dutela adierazi duten familien proportzioa. Hortaz, multzo horretan 128.669 familia sartzen dira; hau da, euskal familien %15,5; 2007an baino 15.273 familia gehiago.

Bilakaerari begiratuz gero, esan beharra dago beren etxebizitzetan birgaitzen bat behar dutela adierazi duten familien kopurua gora eta behera ibili dela, zerra baten hortzen gisara; proportziorik altuena 2006an erdietsi zen (%17), eta baxuenak 2005ean eta 2007an (%14,3 eta 14,1 hurrenez hurren).

Eskariari dagokionez, familien %61,7k uste dute oso edo nahiko litekeena dela hurrengo lau urteetan beren etxebizitza birgaitzea, eta %26,6k urtebeteko epean espero dute erreformak egitea. Kopuru zehatzetan esanda, 79.273 familiak espero dute 4 urteko epean birgaitzea, eta 34.265 familiak, urtebetean.

Los alaveses de 18 a 44 años con ingresos demandan 10.900 viviendas en 2008 -1.400 menos que en 2007-, los vizcaínos 39.000 -7.200 menos-, mientras que el colectivo de guipuzcoanos necesitados de primera vivienda demandan prácticamente el mismo volumen en 2008 que en 2007: 24.400. Algo más de dos de cada tres demandantes de primera vivienda arguyen como motivo principal la emancipación de la tutela paterna –el 69,1%-, mientras que algo menos de un tercio –el 27,6%– buscan vivienda para casarse o vivir en pareja.

En cuanto a la demanda de vivienda por parte del colectivo de acceso, un 68% cree probable acceder en el plazo de 4 años y un 32,7% en dos años.

En Etxebide (registro oficial de demandantes de viviendas) se encuentran inscritas, a 1 de abril 2009, 96.153 personas.

Atendiendo a los niveles de ingresos, se aprecia que un 63,5% de los solicitantes queda por debajo del nivel de los 22.000 euros, mientras que un 23% se ubica en el tramo de ingresos de 22.000 a 35.000 euros.

En cuanto al régimen de acceso, hay una mayor solicitud de viviendas en derecho de superficie (77%), si bien también hay una proporción importante que demanda el régimen de alquiler (61,9%). Una parte significativa de las solicitudes demandan ambos regímenes (38,9%).

La distribución de las solicitudes por cupos muestra que algo más de la mitad quedan adscritas al cupo de menores de 35 años (51,8%), una cuarta parte corresponde al cupo general y una parte significativa (17,5%) al cupo de 4 años de antigüedad. El resto de solicitudes corresponden al cupo de familias monoparentales (4,9%) y personas con discapacidad (0,7%).

## B2) NECESIDAD Y DEMANDA DE REHABILITACIÓN

A lo largo de 2008, la proporción de hogares que señala tener necesidad de rehabilitar o reformar sus viviendas se ha incrementado en un 13,5%. Así son 128.669 los hogares que se engloban en este colectivo, esto es un 15,5% de los hogares vascos y 15.273 hogares más que en 2007.

Desde el punto de vista evolutivo, el porcentaje de hogares con necesidades de rehabilitación de sus viviendas ha ido fluctuando en los últimos 4 años según un perfil de dientes de sierra, con un máximo del 17% en 2006 y registros del 14,3% y 14,1% respectivamente en 2005 y 2007.

En términos de demanda, un 61,7% de los hogares consideran probable poder rehabilitar su vivienda en los próximos cuatro años y un 26,6% tiene previsto llevar a cabo las reformas en el plazo de 1 año. Traducidos a valores absolutos, 79.273 hogares prevén efectuar la rehabilitación en un plazo de 4 años y 34.265 en el de un año.

Lurralde historikoen arabera, birgaitzeko beharren indizea oso antzerakoa da: familia arabarren %15,3k, bizkaitarren %16k eta gipuzkoarren %14,6k adierazi dute ohiko etxebizitzan erreformak egiteko premia dutela. Hiru zifra horiek 2007 urtearen amaieran identifikatutako beharren gainetik daude.

Birgaitzeko beharra duten etxebizitzek batez beste 42,9 urte dituzte; horietatik %68 jabetzakoak dituzte eta erabat ordaindutakoak dira; eta birgaitze-lanen %47,7 elementu pribatiboetan egitekoak dira.

### **C) 2010 ETXEBIZITZA PROGRAMAREN DEFINIZIO OPERATIBOA**

2009ko aurrekontuekin Etxebizitza Bideratzeko 2006-2009 Plana amaituko da, eta hurrengo laurtekorako (2010-2013 eperako) etxebizitzaren arloko estrategia bat zehazteko prozesuari emango zaio hasiera, datorren urtearen hasierako hilabeteetan jarraipena izango duena.

Plangintza estrategiko orori dagokion eran, Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzako 2010-2013 Plan Zuzentzailea zehazteko prozesuak ere luze joko du, gaia oso garrantzitsua baita gizartearentzat, eta gizartearen parte-hartzea bultzatu nahi delako bertan.

Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea eta, beraz, jarduketak-esparrua zehaztutakoan, plan hori mamitzeko etxebizitza-programa operatiboak egingo dira urtero, programa bakoitzean ekintza-lerroak, helburuak eta ekintzak zehaztuko direlarik.

Nolanahi ere den, eta plangintza-prozesu horren baitan hasiko garen arren etxebizitzaren arloan IX. Legegintzaldian garatu beharreko jarduketak zehazten, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak hainbat jarraibide eta helburu estrategiko ezarri ditu, eta horiek izango ditu ardatz nagusi Sailaren jardunak.

LEHENENGO HELBURUA izango da babestutako etxebizitzak bultzatzea; tipologia guztietakoak. Bultzada hori mamitzeko lurzorua eskuratuko da eta babestutako etxebizitzaren eskaintza sustatu eta zabaldu egingo da administrazioaren aldetik.

BIGARREN HELBURUA: etxebizitzaren arloko jarduketetan lehenasuna alokairuaren sustapenari ematea, alde batetik, alokatzeko etxebizitza babestu gehiago eraikiz, eta bestetik, lehendik dauden etxebizitzaren erabilera zentzudunagoa bultzatuz, erabiltzeke dauden etxebizitzak babesturako alokairu-merkatura ateratzeko.

HIRUGARREN HELBURUA: babes ofizialeko etxebizitza sustatzen duten eragile guztien erantzukizun bateratua eta elkarlana bultzatzea.

Por Territorios Históricos, el índice de necesidad de rehabilitación muestra un nivel muy similar: el 15,3% de las familias alavesas, el 16% de las vizcaínas y el 14,6% de las guipuzcoanas declaran tener necesidad de llevar a cabo reformas en su vivienda habitual. Las tres cifras se sitúan por encima de la necesidad identificadas a cierre de 2007.

Las viviendas a rehabilitar tienen un promedio de 42,9 años, en un 68% de los casos son viviendas en propiedad totalmente pagadas y un 47,7% de las rehabilitaciones afectan a elementos privativos.

### **C) LA DEFINICIÓN OPERATIVA DEL PROGRAMA DE VIVIENDA 2010**

El ejercicio presupuestario 2009 marca el fin del período de vigencia del Plan Director de Vivienda 2006-09 y el comienzo del proceso de definición de la estrategia en materia de vivienda de cara al cuatrienio 2010-2013, un proceso que va a proseguir durante los primeros meses de 2010.

Como corresponde a toda planificación estratégica, el proceso de definición del Plan Director de Vivienda Y Renovación Urbana 2010-2013 es un proceso dilatado en el tiempo, tanto por la relevancia y calado social de la materia de la que trata, como por carácter participativo que se va a imprimir al mismo.

Una vez definido el marco general de actuación que constituye el Plan Director de Vivienda, éste se traducirá en Programas operativos de vivienda anuales con sus correspondientes líneas de actuación, objetivos y acciones.

No obstante y si bien será a lo largo del proceso de planificación mencionado cuando se entre a concretar las actuaciones específicas a desarrollar en materia de vivienda a lo largo de la IX legislatura, el Departamento de Viviendas, Obras públicas y Transportes se ha marcado un conjunto de directrices y objetivos estratégicos en torno a las cuales va a girar su actuación.

EL PRIMER OBJETIVO consiste en impulsar la extensión de la vivienda protegida en sus distintas tipologías. En términos operativos se traduce en nuevas actuaciones públicas de captación de suelos y en la promoción y extensión de la oferta de viviendas protegidas.

EL SEGUNDO OBJETIVO persigue la promoción preferente del alquiler en las distintas actuaciones en materia de vivienda, incrementando por un lado la edificación de vivienda protegida nueva para alquiler e impulsando el uso racional del parque existente al objeto de movilizar viviendas hacia el mercado de alquiler protegido.

EL TERCER OBJETIVO desarrolla la corresponsabilidad y cooperación entre todos los agentes promotores de vivienda de protección pública.

**LAUGARREN HELBURUA:** eraikuntzaren kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza ditu ardatz estrategikoak. Era berean, ETXEBIDEren kalitatea eta erabiltzaileen gogobetetasuna bultzatzen jarraitu nahi da. Asmoa da sektorearen produktibitate ekonomikoa eta soziala bultzatzea.

**BOSGARREN HELBURUA:** etxebizitzaren birgaikuntza eta hiri-berrikuntza, eraikitako eta urbanizatutako ondare higiezinari balio handiagoa emateko; alokairuarekin batera hori izango da Etxebizitza eta Hiri Berrikuntza 2010-2013 Plan berriaren bi oinarri nagusiak.

**SEIGARREN HELBURUA:** etxebizitza-programan erabiltzen diren baliabide publikoak babestutako etxebizitzetara dagokien funtzio soziala betetzen dutela bermatzea.

**EL CUARTO OBJETIVO** contempla la calidad, sostenibilidad, seguridad e innovación en la edificación como ejes estratégicos. Asimismo, se pretende continuar impulsando la calidad y la satisfacción de los usuarios de ETXEBIDE, Servicio Vasco de la Vivienda. La idea estriba en mejorar la productividad económica y social del sector.

**EL QUINTO OBJETIVO** se centra en la rehabilitación y regeneración urbana para optimizar la puesta en valor del patrimonio inmobiliario edificado y urbanizado, que pasa a convertirse junto al alquiler en los dos pilares básicos del nuevo Plan Director de Vivienda y renovación Urbana 2010-2013.

Finalmente, los recursos públicos que se emplean en el programa de vivienda preservan su utilidad mediante la garantía de la función social del parque de viviendas protegidas que asume el SEXTO OBJETIVO.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p><b>1. ETXEBIZITZA BABESTUA ZABALTZEKO AHALEGIN HANDIA EGITEA, HALA KOPURUARI NOLA TIPOLOGIEI DAGOKIENEZ</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lurzorua lortzea. (Operadore publikoek babes publikoko etxebizitzetarako lortutako lurzoruaren guztizkoa). <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Sailak kudeatutako lurzoru-lorpena. <b>2.300</b></li> <li>2. Orubide, Visesak kudeatutako lurzoru-lorpena. <b>2.200</b></li> <li>3. Udalek kudeatutako lurzoru-lorpena. <b>2.000</b></li> </ul> </li> <li>• Babes publikoko etxebizitza berriak sustatzea, saltzeko/azalera eskubiderako. (Hasitako etxebizitzaren kopurua). <b>4.700</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Babestutako/itundutako babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea (BOE). <b>3.800</b></li> <li>2. Erregimen tasatuko autonomia erkidegoko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea (BOET). <b>200</b></li> <li>3. Erregimen tasatuko udaleko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea (UET). <b>700</b></li> </ul> </li> </ul> <p><b>2. ALOKAIRUAREN LEHENTASUNEZKO PRESENTZIA ETXEBIZITZA BABESTU BERRIEN SUSTAPENEAN</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Babestutako alokairu parkea dimentsionatzea.</li> </ul>		<p><b>1. IMPULSO DECIDIDO A LA EXTENSIÓN DE LA VIVIENDA PROTEGIDA, TANTO EN VOLUMEN COMO EN VARIEDAD DE TIPOLOGIAS</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Obtención de suelo (número total de suelo obtenido para viviendas de protección pública por los operadores públicos). <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Obtención de suelo gestionada por Departamento.</li> <li>2. Obtención de suelo gestionada por Orubide-Visesa.</li> <li>3. Obtención de suelo gestionada por Ayuntamientos.</li> </ul> </li> <li>• Promoción de nuevas viviendas de protección pública para venta/derecho superficie. (Número de viviendas iniciadas). <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Edificación de viviendas protegidas/concertadas.</li> <li>2. Edificación de viviendas de protección oficial de régimen tasado autonómicas (VPOT).</li> <li>3. Edificación de viviendas de protección oficial de régimen tasado municipal (VTM).</li> </ul> </li> </ul> <p><b>2. PRESENCIA PREFERENTE DEL ALQUILER EN LAS ACTUACIONES DE VIVIENDA PROTEGIDA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dimensionamiento del parque de alquiler protegido.</li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
1. Alokairuko parke publikoaren kuota babestutako parkearen guztizkoaren gainean (2010eko abenduaren 31n).	30%	1. Cuota parque público de alquiler sobre Total parque protegido en % (a 31 de diciembre de 2010).
2. Babestutako alokairu-parkearen bilakaera (alokairuko parke publikoa osatzen duten etxebizitzaren kopurua 2010eko abenduaren 31n).	18.000	2. Evolución del parque de alquiler protegido. (Número de viviendas que componen el parque publico en alquiler a 31 de diciembre de 2010).
• Alokairuko babes publikoko etxebizitzaren eraikuntza.		• Edificación de viviendas de protección pública en alquiler.
1. Alokairuko babes publikoko etxebizitza eta zuzkidura-alojamendu berrien eraikuntza.	2.600	1. Edificación de nuevas viviendas de protección pública y alojamientos dotacionales en alquiler.
2. Alokabide finkatzea babestutako alokairuen kudeatzaile nagusi gisa (ekitaldiaren amaieran kudeatutako etxebizitzaren kopurua).	10.000	2. Consolidación de Alokabide/SPGVA, como gestor central del alquiler protegido. (Número de viviendas gestionadas a final del ejercicio).
• Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea, babestutako alokairurako.		• Movilización de la vivienda vacía hacia el alquiler protegido.
1. Biziguneren babestutako alokairuko parkea osatzen duten etxebizitzaren kopurua.	4.750	1. Numero de viviendas que integran el parque de alquiler protegido de Bizigune.
<b>3. ERANTZUNKIDETASUNA ETA LANKIDETZA BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN AGENTE SUSTATZAILE GUZTIEN ARTEAN</b>		<b>3. CORRESPONSABILIDAD Y COOPERACIÓN ENTRE TODOS LOS AGENTES PROMOTORES DE VIVIENDA DE PROTECCIÓN PÚBLICA</b>
• Udalek egin beharreko babes publikoko etxebizitza berrien eraikuntza.	700	• Edificación de nuevas viviendas de protección pública a desarrollar por ayuntamientos.
• Sustatzaile pribatuek egin beharreko babes publikoko etxebizitza berrien eraikuntza.	3.000	• Edificación de nuevas viviendas de protección pública a desarrollar por promotores privados.
• Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadin lanean diharduten kreditu-erakundearen arteko finantza hitzarmenetako baliabideen bitartez sistemari emandako finantzazioa (milioi eurotan).	475	• Financiación aportada al sistema a través del mecanismo de los Convenios Financieros entre el Gobierno Vasco y las entidades de crédito operantes en Euskadi (en millones de euros).
<b>4. ERAIKUNTZAREN KALITATEA, IRAUNKORTASUNA, SEGURITASUNA ETA BERRIKUNTZA</b>		<b>4. CALIDAD, SOSTENIBILIDAD, SEGURIDAD E INNOVACIÓN EN LA EDIFICACIÓN</b>
• Iraunkortasunerako laguntza-lineak abian jartzea. (Onartutako proiektuen kopurua).	25	• Lanzamiento línea de ayudas a la sostenibilidad. (Número de proyectos aprobados).
• Eraikuntzaren kalitatea sustatzea; Eraikal programa (Onartutako proiektuen kopurua).	150	• Fomento de la calidad en la edificación, programa Eraikal. (Número de proyectos aprobados).
• ETXEBIDEk. Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak emandako zerbitzua baloratzea, erabiliztaile eta bezeroen aldetik (adierazlea: gogobetetasuna neurtzeko inkesta, 0-10 bitarteko balorazioarekin).	7,0	• ETXEBIDE, Servicio Vasco de la Vivienda Valoración del servicio prestado efectuada por usuarios y clientes. (Indicador: encuesta de medición de satisfacción con escala de valoración de 0 a 10).
<b>5. BIRGAITZEA ETA HIRI ERABERRITZEA</b>		<b>5. REHABILITACIÓN Y REGENERACIÓN URBANA</b>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoak erreformatzeko eta hiri-berrikuntzarako jarduketak (onartutako proiektuen kopurua).</li> </ul>	15	<ul style="list-style-type: none"> <li>Actuaciones de reforma de barrios y renovación urbana (Número de proyectos aprobados).</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Irisgarritasuneko eta arkitektura-oztopoak kentzeko programa (onartutako proiektuen kopurua).</li> </ul>	175	<ul style="list-style-type: none"> <li>Programa de accesibilidad y de supresión de barreras arquitectónicas. (Número de proyectos aprobados en Planes y Obras).</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze bakandua eta integratua (adierazlea: diru-laguntza jaso duten birgaitutako etxebizitzaren kopurua = gaiari buruzko administrazio-ebazpenak).</li> </ul>	11.000	<ul style="list-style-type: none"> <li>Rehabilitación de viviendas y edificios, aislada e integrada. (Indicador: número de viviendas rehabilitadas subvencionadas = resoluciones administrativas en la materia).</li> </ul>
<p><b>6. ETXEBIZITZA BABESTUAREN PARKEAREN GIZARTE FUNTZIOA BERMATZEA</b></p>		<p><b>6. GARANTÍA DE LA FUNCIÓN SOCIAL DEL PARQUE DE VIVIENDA PROTEGIDA</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Babestutako parke publikoaren ikuskapena (ekitaldiaren amaieran metatu diren ikuskatutako etxebizitzaren kopurua).</li> </ul>	50.000	<ul style="list-style-type: none"> <li>Inspección del parque público protegido (número de viviendas inspeccionadas acumuladas al cierre del ejercicio).</li> </ul>

<b>PROGRAMA</b>	<b>PROGRAMA</b>
5111 EGITURA ETA LAGUNTZA	5111 ESTRUCTURA Y APOYO
<b>ARDURADUNA</b>	<b>RESPONSABLE</b>
<u>06 ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIOAK</u>	<u>06 VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES</u>
ZERBITZU ZUZENDARIA	DIRECTORA DE SERVICIOS

**MEMORIA**

Egitura eta laguntza programa Zerbitzu Zuzendaritzak eramaten du aurrera, izaera horizontaleko organoa izanik Saileko gainontzeko zuzendaritzei laguntza eskaintzen baitie ezarritako helburuak lortzeko. Egiteko hori bideratzeko hainbat atal bereizi dira Zuzendaritzaren barruan:

- Antolaketa, langileak eta gai orokorrak: Saileko gisabaliabideak kudeatu eta antolatzeko, langileei buruzko politika bideratzeko, eta prestakuntzako eta euskalduntzeko planak aurrera eramateko.
- Lege-aholkularitza: legeak, dekretuak, erregelamenduak eta bestelako arauak egin eta kontrolatzeko aholkularitza juridikoa eskaintzeko.
- Kontratazioa: Sailaren eskumenekoak diren administrazio-kontratazioko espedienteak izapidetu, ebatzi eta formalizatzeko.
- Administrazio eta Finantzen Zerbitzua: Kontrol Ekonomikoko Bulegora bidali aurretik kontularitza-espedienteen gainean kontu hartzea eta kudeatzea.
- Informatika: Saileko ekipamendu eta aplikazioak behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabide informatiboak ezarri eta optimizatzeko urratsak egiteko.
- Finantzen plangintza eta analisisa: Sailaren aurrekontua taxutu, jarraipena egitea, eta europar funtsen eta politika horizontalen kudeaketa, eta ekonomia programa.
- Saileko estatistika-organoa: sailaren jarduketaremetan sor daitezkeen informazio estatistikoko beharrei erantzutea, Euskal Estatistika Erakundearen organoetan eta Euskal Estatistika Planean parte hartzea.

El Programa de Estructura y Apoyo se desarrolla a través de la Dirección de Servicios, órgano de carácter horizontal a través del cual se presta apoyo al resto de direcciones del Departamento para la consecución de los objetivos del mismo. Esta tarea se canaliza a través de los siguientes servicios:

- Organización, personal y asuntos generales: desde donde se gestionan y organizan los recursos humanos del Departamento y la política de personal, así como los planes de formación y euskaldunización.
- Asesoría jurídica: para la elaboración y control de leyes, decretos, reglamentos y desarrollos normativos y asesoramiento jurídico.
- Servicio de contratación: para la tramitación, resolución y formalización de los expedientes de contratación administrativa competencia del Departamento.
- Servicio Administrativo Financiero: para la intervención y gestión de los expedientes contables ante la Oficina de Control Económico.
- Informática: Implantación y optimización de los recursos informáticos necesarios para el funcionamiento de los equipos y aplicaciones del Departamento.
- Planificación y Análisis Financiero: elaboración y seguimiento del presupuesto del Departamento, gestión de fondos europeos y políticas horizontales y programación económica.
- Órgano estadístico departamental: cubrir las necesidades de información estadística de las diferentes áreas de actuación del departamento, participación en los órganos de la Organización Estadística Vasca y en el Plan Vasco de Estadística.

Gainera, Zerbitzu Zuzendaritza arduratzen da Eusko Jaurlaritzako gainontzeko sailekiko eta Legebiltzarrekiko harremanak bideratzeaz, eta erakunde mailako komunikazioarekin zerikusia duten ekintzak, publizitate eta protokoloaren inguruko harremanak, eta interes orokorra duten azterlan eta txostenak eramateaz.

Asimismo, desde la Dirección de Servicios se canalizan las relaciones con el resto de Departamentos del Gobierno y con el Parlamento, así como la comunicación institucional, relaciones protocolarias y publicitarias y los estudios e informes de carácter general.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p><b>1. ORGANO NAGUSIAK ETA LURRALDEETAKOAK FINANTZA ETA AURREKONTU, KONTRATAZIO, LANGILE ETA ZERBITZU KOMUN ETA LEGE AHOLKULARITZAREN ALORREAN KOORDINATU, KONTROLATU ETA LAGUNTZA EMATEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrekontuen aurreproiektua egitea.               <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Aurrekontuen aurreproiektuak, bilkurak. <b>1/12</b></li> </ul> </li> <li>• Aurrekontuen jarraipena, lehen kontu-hartzea eta kontrola.               <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Kudeaketa-agiriak. <b>25000</b></li> <li>2. Aurrekontuak zenbateraino gauzatu diren jakiteko txostenak. <b>15</b></li> </ul> </li> <li>• Sailaren jarduketa alorreko administrazio-kontratuak.               <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Kontratazio-espeditenteak. <b>1150</b></li> <li>2. Kontratazio-espeditenteak zenbateraino gauzatu diren jakiteko txostenak. <b>73</b></li> <li>3. Kontratazio gaietarako aholkularitza. <b>200</b></li> </ul> </li> <li>• 4. Jakinarazpenak <b>10100</b></li> <li>• 5. Aurreko urteetako espedienteen gaineko gorabehera izapidetzea, hala nola, behin-behineko eta behin betiko likidazioak, aldaketak, luzapenak eta prezioen berrikuspena). <b>115</b></li> <li>• Beste zerbitzuekin elkarlanean Sailaren lege-aholkularitza lana burutzea. Xedapen orokorrak eta hitzarmenak taxutu eta kontrolatzea. Txostenak eta lege-aholkularitza lana, oro har.               <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Lege-aholkularitzarekin lotutako jarduketak, arauak, hitzarmenak eta haiek izapidetzeko agiriak taxutzea. <b>135/30/55/300</b></li> </ul> </li> <li>• Langileen alorreko administrazio eta kudeaketa lan arrunta.</li> </ul>		<p><b>1. COORDINACIÓN CENTRAL Y PERIFÉRICA, CONTROL Y APOYO DE LOS ÓRGANOS DEL DEPARTAMENTO EN LAS ÁREAS FINANCIERA Y PRESUPUESTARIA, DE CONTRATACIÓN, DE PERSONAL Y SERVICIOS COMUNES Y DE ASESORÍA JURÍDICA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elaboración del anteproyecto del Presupuesto.               <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Anteproyecto de presupuestos, reuniones.</li> </ul> </li> <li>• Seguimiento, intervención previa y control presupuestario.               <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Documentos de gestión.</li> <li>2. Informes sobre el grado de ejecución de los presupuestos.</li> </ul> </li> <li>• Contratación administrativa en las áreas de actuación del Departamento.               <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Expedientes de contratación.</li> <li>2. Informes sobre ejecución de los expedientes de contratación.</li> <li>3. Asesoramiento en materia de contratación.</li> </ul> </li> <li>• 4. Notificaciones</li> <li>• 5. Tramitación de incidencias con expedientes de años anteriores como Liquidaciones Provisionales y Definitivas, Modificaciones, Prórrogas, Revisiones de precios, etc.</li> <li>• Asesoramiento técnico-jurídico, en coordinación con los distintos servicios, al Departamento. Elaboración y control de disposiciones de carácter general y de convenios, Informes y Asesoría Jurídica en general.               <ul style="list-style-type: none"> <li>1. Actuaciones relacionadas con asesoramiento jurídico, elaboración de disposiciones normativas de carácter general, convenios y documentos de tramitación.</li> </ul> </li> <li>• Administración y gestión ordinaria en materia de personal.</li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
1. Langileei buruzko bilkurak eta agiriak.  • Sailaren aginpideko zerbitzu komunak antolatu eta kudeatzea. Argitarapen eta hedapen lana.	200/400	1. Reuniones y actuaciones documentales de personal.  • Organización y Administración de los servicios comunes del Departamento de competencia del mismo. Actividad editora y divulgativa.
1. Ofizioak eta espedienteak.  • Saileko atalak informatizatzea.	900/100	1. Oficios y expedientes.  • Informatización de las diversas áreas del Departamento.
1. Ekipo informatikoak erosteko proposamena, ekipoen konponketa eta mantenimendu lana, eta aplikazioak erabili eta ekipoak ustiatzea.	11/100/30	1. Propuestas de adquisición de equipo informático, reparación y mantenimiento de equipos, explotación de aplicaciones y de equipos.
2. Komunikazioak eta sarbideak (internet, renting, urrunekoak).	140/300/20	2. Accesos y comunicaciones (Internet, Renting, Remotos).
3. Instalazioak: aplikazioak, sarbideak, zerbitzuak.  • Saila bera antolatzea.	150	3. Instalaciones: Aplicaciones, Accesos, Servicios.  • Desarrollar en el Departamento la función de organización.
1. Arauak, bilkurak, aginduak eta idazkiak.	15/35/60	1. Disposición normativa, reuniones, instrucciones y escritos.
<b>2. SAILEKO ORGANOEN ARTEKO HARREMANAK ETA GOBERNUKO BESTE ORGANOEKIKOAK KOORDINATU ETA BEHAR IZANEZ GERO, EZARRITAKO JARDUNBIDEARI JARRAITUZ, LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANAK BIDERATZEA</b>  • Saileko organoen arteko, gobernuko gainontzeko organoekiko, eta bestelako administrazioekiko harremanak bideratzea, Sailaren jarduketa alorreko irizpideak eta ekintzak bateratu ahal izateko.		<b>2. COORDINACIÓN ENTRE LOS DISTINTOS ÓRGANOS DEL DEPARTAMENTO Y DE ÉSTOS CON EL RESTO DEL GOBIERNO Y, EN SU CASO, ENCAUZAMIENTO DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO POR EL PROCEDIMIENTO ESTABLECIDO</b>  • Concertar las relaciones entre los órganos del Departamento y de éstos con el resto del Gobierno y otras Administraciones, para aunar criterios y acciones en ejecución de las áreas de actuación del Departamento.
1. Bilkurak, idazkiak eta komunikazioak.	10/45	1. Reuniones, escritos y comunicaciones.
<b>3. SAILEKO LANGILEEN ETA BALIABIDE MATERIALEN HOBEKUNTZA ETA INFORMATIKAKO PLANAREN GARAPENA</b>  • Langileei eta haien antolaketari dagozkien gaien buruzko azterlanak egin eta aginpidea duten organoei proposamenak egitea. Sailaren egitura proposatzea. Informatikaren aldetik dauden beharrak aztertu eta organo aginpidedunei horien araberako proposamenak egitea.		<b>3. OPTIMIZACIÓN DE LOS RECURSOS PERSONALES Y MATERIALES DEL DEPARTAMENTO, DESARROLLO DEL PLAN INFORMÁTICO</b>  • Estudio y propuesta a los órganos competentes en materia de personal y su organización. Propuesta de la estructura orgánica del Departamento. Estudio de necesidades y propuesta a los órganos competentes en materia informática.
1. Aplikazio informatikoak. (berriak edo/eta hobekuntzak)	35	1. Aplicaciones informáticas (nuevas y/o mejoras).



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p>2. Arau orokorrak, bilkurak eta kudeaketa agiriak.</p> <p><b>4. ESTADISTIKAKO ORGANOA K SAILEKO ESTADISTIKAK EGIN</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikako 4/1986 Legea betetzeko, organo horren bidez Sailaren estatistikako lanak bideratu eta arautzen dira.</li> </ul> <p>1. Estatistikako eragiketak.</p>	<p><b>5/30/50</b></p> <p><b>6</b></p>	<p>2. Disposiciones normativas de carácter general, reuniones y documentos de gestión.</p> <p><b>4. ELABORACIÓN DE LA ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL A TRAVÉS DEL ÓRGANO ESTADÍSTICO</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>En cumplimiento de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma, a través del mismo se canaliza y regula la producción estadística del Departamento.</li> </ul> <p>1. Operaciones estadísticas.</p>

**PROGRAMA**  
5131 TRENBIDEAK  
**ARDURADUNA**  
06 ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIOAK  
  
GARRAIO AZPIEGITURAREN ZUZENDARIA

**PROGRAMA**  
5131 FERROCARRILES  
**RESPONSABLE**  
06 VIVIENDAS, OBRAS PÚBLICAS Y  
TRANSPORTES  
  
DIRECTOR DE INFRAESTRUCTURA DEL  
TRANSPORTE

**MEMORIA**

Eusko Jaurlaritzak lortu asmo duen iraunkortasuna eta mugikortasunaren hobekuntza lortzeko, ezinbestekoa da instalazioak, burdinbideak eta, oro har, sistema osoa berritzeko ahaleginari eustea, zerbitzuen maiztasuna hobetu ahal izateko, eta aldi berean segurtasuna eta zerbitzuaren kalitatea areagotzeko. Zehazki, geltokietako instalazioak hobetzea, burdinbideak bikoiztea eta trenbide-pasaguneak kentzea izango da helburua.

EAEko trenbide-garraioaren maiztasuna, segurtasuna eta kalitatea hobetzeak azpiegitura berrien plangintza, diseinu eta eraikuntza eskatzen du, bai eta lehendik daudenak egokitu eta modernizatzea ere. Alde horretatik 2010 urtean aurrerapen handia egingo dugu, Bilboko eta Donostiako aldirietako lineetan; Sailak zuzenean burutuko ditu lanak Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea (ETS) sozietateari egingo dion ekarpenaren bidez, eta Eusko Trenbideak SA zerbitzuaren eragile gisa berretsiko du.

Trenbide-pasaguneak kentzeko lanean jarraituko dugu, horrekin sestra bereko pasagune horiek kentzera behartzen duen lege-agindua betez. Horrela bada, lehen hasitakoekin jarraituko dugu (Eibarko Txarakoan, Zarautzen, Zamudioko Ugaldegurun I en), eta 2010eko aurrekontua gainera, kasuan kasuko udalekin hitzarmenak sinatu ondoren obra berriei ekiteko hornituko da.

Horretaz aparte, burdinbideak bikoizteko lan garrantzitsuak daude aurreikusita (Loiola–Herrera, Fanderia–Oiartzun, Añorga–Errekalde, Euba–Iurreta, Traña–Lebario) eta etorkizunean beste batzuk egiteko azterlanak ere bai, zerbitzuaren maiztasuna bikoiztea lortu ahal izateko.

Dentro del objetivo sostenibilidad programado por el Gobierno Vasco, así como de la mejora de la movilidad, resulta necesario continuar con los esfuerzos en la renovación de instalaciones, vías y sistema en general, que permitan mejorar frecuencias, incrementando al mismo tiempo la seguridad y la calidad del servicio. Estos objetivos se concretan en mejoras de las instalaciones en estaciones, desdoblamiento de vías y supresión de pasos a nivel.

Los objetivos de mejora de frecuencias, de seguridad y de calidad en el transporte ferroviario de la C.A.P.V. conlleva importantes actuaciones de planificación, diseño y construcción de nuevas infraestructuras, así como de adecuación y modernización de las existentes. El año 2010 supondrá un avance en el sentido comentado para las líneas de cercanías de Bilbao y San Sebastián, que se llevarán a cabo directamente por el Departamento o mediante la aportación a Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea (ETS), confirmando a Eusko Trenbideak, S.A. como operador del servicio.

Se continuará con las actuaciones de supresión de pasos a nivel, dando cumplimiento al mandato legislativo que obliga a agilizar las obras de supresión. De esta forma, continuarán las existentes (Txarakoan en Eibar, Zarautz, Ugaldeguren I en Zamudio) dotando al presupuesto de 2010 para nuevas actuaciones y llegando a acuerdos para la firma de convenios con los Ayuntamientos.

Se contemplan asimismo, importantes actuaciones de desdoblamiento de vías (Loiola-Herrera, Fanderia-Oiartzun, Añorga-Rekalde, Euba-Iurreta, Traña-Lebario) y estudios para futuras actuaciones, todo ello con el objetivo de duplicar la frecuencia del servicio.

Azpiegiturak modernizatzeko jarduketa-lerroaren baitan obra berezi oso garrantzitsu batzuk egiteko dirua jarriko da: Eibarren Ardantzako geltokia eta Artxandako tunela eraikitzeak, esaterako.

Donostialdearen etorkizunerako garrantzitsua izango den metroaren gaineko informazio-azterlan eta eraikuntza-proiektua ere bideratuta daude (horretarako ahal den neurrian egungo Topoaren linea aprobetxatuko da), hiritarren mugikortasuna guztiz hobetuko duelarik.

Tranbiei dagokienean, Bilboko tranbiaren proiektuak aurrera egingo du, Basurtu-La Casilla tarteko obrekin eta Zabalbururaino luzatzeko azterlanekin, eta gainera, Leio-Unibertsitatea proiektua ere egingo dugu.

Bestetik, EAEko hiru lurraldeetan tranbiak ezartzeko azterlanak egingo dira, horiek finantzatzeko, gainerako erakundeekin akordioa lortuz.

En la línea de modernización de infraestructuras se establecen dotaciones para obras singulares y de gran importancia, tales como la construcción de la estación de Ardanza en Eibar o el túnel de Artxanda.

Importante para el futuro de Donostialdea es el estudio informativo y posterior proyecto constructivo del metro (para la cual se aprovecharán en lo posible, las líneas del actual Topo), que contribuirá de forma decisiva a la movilidad de los ciudadanos.

En cuanto a tranvías, se continuará con el proyecto del Tranvía de Bilbao y los estudios de su continuación hasta Zabalburu, realizando también el proyecto de Leioa-Universidad.

Asimismo se continuarán los estudios de nuevos tramos de tranvías en los tres territorios de la C.A.P.V., llegando a acuerdos con el resto de las instituciones para su financiación.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p><b>1. EAE-KO TRENBIDE AZPIEGITURAREN HOBEKUNTZA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Trenbideak S.A. ustiatutako trenbide lineen azpiegiturak garatu, atondu eta hobetzea.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Trenbide-pasaguneak kentzeko proiektuak idaztea. 1</li> <li>Trenbideak bikoizteko obrak: tartea. 5</li> <li>Trenbideak bikoizteko proiektuak idaztea. 4</li> <li>Salgaien garraio-zentro intermodaletarako proiektuak. 1</li> <li>Geltokien eraikuntza eta berrikuntza. 5</li> </ol> <ul style="list-style-type: none"> <li>Herrietan dauden trenbide-pasaguneak kendu eta berrantolatzeko lanak egiteko lankidetzahitzarmenak sinatzea kasuan kasuko udalekin.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Kendutako trenbide-pasaguneak. 9</li> </ol> <ul style="list-style-type: none"> <li>Zaintza eta mantenimenduko planen finantzaketa.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Trenbide kilometroak. 100</li> </ol> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.</li> </ul>		<p><b>1. LA MEJORA DE LA INFRAESTRUCTURA FERROVIARIA EN LA C.A.P.V</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Desarrollo, adecuación y mejora de las infraestructuras ferroviarias de las líneas explotadas por Eusko Trenbideak, S.A.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Redacción de proyectos de supresión pasos a nivel. 1</li> <li>Obras de desdoblamiento de vías: Tramos. 2</li> <li>Redacción de proyectos de desdoblamiento de vías. 3</li> <li>Proyectos de centros Intermodales de transporte de mercancías. 4</li> <li>Construcción y renovación de estaciones. 5</li> </ol> <ul style="list-style-type: none"> <li>Formalización de convenios de colaboración con Ayuntamientos y Diputaciones para la supresión y reordenación de los pasos a nivel existentes en cada municipio.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Pasos a nivel suprimidos. 1</li> </ol> <ul style="list-style-type: none"> <li>Financiación de los planes de conservación y mantenimiento.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Kilómetros de línea. 100</li> </ol> <ul style="list-style-type: none"> <li>Actuaciones encuadradas en el Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en el País Vasco.</li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
1. Metro arinen eraikuntza.	1	1. Construcción de metros ligeros.
2. Tranbien bideragarritasunari buruzko azterlanak.	2	2. Estudios de viabilidad de tranvías.
3. Tranbien trazadura edo-eta eraikuntza proiektuak idaztea. Tarteak.	2	3. Redacción de proyectos de trazado y/o construcción de tranvías. Tramos.



PROGRAMA	PROGRAMA
5133 BILBOKO HIRI TRENBIDEA	5133 FERROCARRIL METROPOLITANO DE BILBAO
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>06 ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIOAK</u>	<u>06 VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES</u>
GARRAIO AZPIEGITURAREN ZUZENDARIA	DIRECTOR DE INFRAESTRUCTURA DEL TRANSPORTE

#### MEMORIA

Bilboko metropoli-trenbidearen programan metropoli-trenbidea eraikitzeke obretarako behar diren diru-baliabideak hartzen ditu.

2010ean 2. linea eraikitzeke obrekin jarraituko dugu Santurtzi-Kabiezes (Mamarigako sarbide-kanoia barne) eta Ariz-Basauri tarteetan. Era berean, Urbinagako aldagunea egiteko proiektuko lanei ekingo zaie (Estatuko Administrazio Orokorrarekin elkarlanean). Metropoli-trenbidearen 1. linean, Maidaganen, Getxon, trenbide-pasagunea kentzeko obrak amaituko dira.

3. lineari dagokionean (Etxebarri-Matiko linea, alegia), bultzada garrantzitsua emango zaio 2010 urtean, obrak aurreratu eta zerbitzua aurreikusita zegoen egunetan jar dadin martxan. Gainera 4. linea, Moiu eta Errekalde-Irala, egiteko proiektuko lanei ekingo zaie.

Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea (ETS) martxan dauden proiektuen zuzendaritza teknikoaren ardura izaten jarraituko du.

Bizkaiko Garraioen Partzuergoaren organoetan aktiboki parte-hartzen jarraituko dugu.

Bilboko metropoli-trenbidea eraikitzeke proiektuetarako behar diren baliabideak emango zaizkie, bai Bizkaiko Garraio Partzuergoari, bai Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sareari.

El Programa del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao contempla las dotaciones económicas necesarias para la ejecución de las obras del F.M.B.

Durante el año 2010 se continuará con la construcción de la línea 2 en sus tramos Santurtzi-Kabiezes (incluido el cañón de acceso a Mamariga) y Ariz-Basauri. Asimismo, se acometerán los trabajos del proyecto del intercambiador de Urbínaga (en colaboración con la Administración General del Estado). En la línea 1 se concluirán los trabajos de eliminación del paso a nivel de Maidagan en Getxo.

Por lo que se refiere a la línea 3 (Etxebarri-Matiko), recibirá un importante impulso económico durante el año 2010, con el fin de que el avance de las obras permita que el servicio entre en funcionamiento en las fechas previstas. También se iniciarán los trabajos del proyecto de línea 4 entre Moyua y Rekalde-Irala.

Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea (ETS) continuará al frente de la dirección técnica de los distintos proyectos.

Se mantendrá la participación activa en los distintos Órganos del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Para los distintos proyectos de construcción del F.M.B. se destinan los recursos necesarios tanto al Consorcio de Transportes de Bizkaia como a Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea (ETS).

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p><b>1. GARRAIO PUBLIKOA BILBOKO HIRIALDEAN HOBETO TXERTATU DADIN BULTZATZEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bilboko metropoli-trenbidearen 2. linearen eraikuntza (Santurtzi-Kabiezes tartea eta Ariz-Basauri).               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gauzatzen ari diren obra zibileko kontratuak.</li> <li>2. Gauzatzen ari diren instalazio kontratuak.</li> <li>3. Ekipamendu kontratuak.</li> </ol> </li> <li>• Maidagango trenbide-pasagunea kentzea (Getxo).</li> <li>• Urbinagako aldagunearen eraikuntza.</li> <li>• Bilboko metropoli-trenbidearen 3. linearen eraikuntza (Etxebarri-Alde Zaharra-Matiko).               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Egiten ari diren obra zibileko kontratuak.</li> </ol> </li> <li>• 4. linearen eraikuntza (Moiua-Errekalde).</li> </ul> <p><b>2. BILBOKO METROPOLI-TRENBIDEAREN GARRAIO ZERBITZUA BERMATZEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Behar diren diru-baliabideak jartzea.</li> </ul>	<p>2</p> <p>3</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p>	<p><b>1. MEJORA DE LA INTEGRACIÓN DE LA RED DE TRANSPORTE PÚBLICO EN EL ÁREA METROPOLITANA DE BILBAO</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Construcción de la línea 2 (Santurtzi-Kabiezes y Ariz-Basauri) del F.M.B.               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Contratos de obra civil en ejecución.</li> <li>2. Contratos de instalaciones en ejecución.</li> <li>3. Contratos de equipamiento.</li> </ol> </li> <li>• Eliminación del paso a nivel en Maidagan (Getxo).</li> <li>• Construcción del intercambiador de Urbínaga.</li> <li>• Construcción de la línea 3 (Etxebarri-Casco Viejo-Matiko) del F.M.B.               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Contratos de obra civil en ejecución.</li> </ol> </li> <li>• Construcción línea 4 (Moyua-Rekalde)</li> </ul> <p><b>2. GARANTIZAR EL SERVICIO DE TRANSPORTE DE LA RED DE METRO DE BILBAO</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dotación de los medios económicos precisos.</li> </ul>

PROGRAMA	PROGRAMA
5134 EAE-KO TRENBIDE SARE BERRIA-BEREZKO FINANTZAZIOA	5134 NUEVA RED FERROVIARIA EN LA CAE- FINANCIACIÓN PROPIA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>06 ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIOAK</u> GARRAIO AZPIEGITURAREN ZUZENDARIA	<u>06 VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES</u> DIRECTOR DE INFRAESTRUCTURA DEL TRANSPORTE

**MEMORIA**

Bai Eusko Jaurlaritzarentzat, bai Estatuko Administrazio Orokorrarentzat, funtsezko helburua da EAEko trenbide-sare berria eraikitzeke, eta hortaz, bultzada nabarmena emango dio proiektu horri, batetik, Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinatutako hitzarmenak garatuz (eta horretarako proiektuak bizkorrago idazteko aukera emango duten kredituak horniko ditu) eta Eusko Jaurlaritzaren ardurapekoak diren obrak burutuko ditu (Gipuzkoako adarra).

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Estatuko Administrazio Orokorrak 2006ko apirilaren 24an sinatu zuten hitzarmenarekin bat, Euskal y-aren Gipuzkoako adarreko proiektuak idatziko ditu, hasi Bergaran 9+000 kp-tik eta Irunera arte (Donostian trenbidea sartzeko zatia barne), bere gain hartuko ditu obren zuzendaritza fakultatiboa, kontratazioa eta obrak burutzeko ardura, eta adar horretako desjabetze-espedienteen kudeaketa administratiboan lagundu egingo du, eta hori guztia bere finantza-baliabide propioak erabiliz egingo du.

Egiteko horien ondorioz sortutako gastuak aurrekontu-programa honetan sartu dira, eta Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea hartuko ditu bere gain.

2010ean esleituta dauden eta dagoeneko eraikitzen ari diren tarteetako obrekin jarraituko da: Ordizia-Itsasondo, Legorreta, Tolosa, Beasain ekialdea eta Beasain mendebaldea. Hasita dauden horietaz aparte, beste zazpi tarte esleituko dira, eta 2010ean zehar hasiko dira: Bergara - Antzuola, Antzuola - Ezkio-Itsaso, Tolosa - Hernialde, Bergara, Ezkio-Itsaso - Beasain, Urnieta - Hernani eta trenbidea Donostian sartzeko tarteak.

Tanto para el Gobierno Vasco como para la Administración General del Estado, es un objetivo esencial la construcción de la Nueva Red Ferroviaria en el País Vasco, por lo que se dará un impulso decidido al proyecto, desarrollando los convenios firmados con la Administración General del Estado, para lo cual se procederá a dotar los créditos que permitan acelerar la redacción de los proyectos y la posterior ejecución de las obras responsabilidad del Gobierno Vasco (ramal guipuzcoano).

El Gobierno Vasco, de acuerdo al convenio de colaboración suscrito el 24 de abril de 2006 entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Administración General del Estado redactará los proyectos constructivos de plataforma de la "Y" Vasca en el ramal guipuzcoano desde el P.K. 9+000 en Bergara hasta Irún (incluido el tramo que acomete la inserción en Donostia-San Sebastián), asumiendo la dirección facultativa de dichas obras, contratando y ejecutando las mismas y colaborando en la gestión administrativa de los expedientes expropiatorios de dicho ramal, todo ello con cargo a sus propios recursos financieros.

Los gastos derivados de las tareas relacionadas anteriormente aparecen recogidos en el presente Programa Presupuestario siendo asumidos por el ente Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea

Durante el año 2010 se continuará con las obras adjudicadas y en fase de construcción: tramo Ordizia-Itsasondo, Legorreta, Tolosa, Beasain Este y Beasain Oeste. Se unirán a los anteriores, siete ramales que serán adjudicados, iniciándose su construcción a lo largo del año 2010, son los siguientes: Bergara-Antzuola, Antzuola-Ezkio/Itsaso, Tolosa-Hernialde, Bergara, Ezkio/Itsaso-Beasain, Urnieta-Hernani y el acceso de la línea ferroviaria a Donostia-San Sebastián.



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p><b>1. EUROPAKO TRENBIDE SAREAN SARTZEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko trenbide-sare berriaren Gipuzkoako zatiari dagokionean, eraikuntza-proiektuen, obren zuzendaritza fakultatiboen eta Estatuko Administrazioarekin batera desjabetzeko espedienteen administrazio-kudeaketan elkarlanean jarduteko lanak finantzatzea.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>EAEko trenbide-sare berria eraikitzeko proiektuak.</li> <li>Obren zuzendaritza.</li> <li>Desjabetzeen kudeaketa.</li> <li>Gizarteratzeko ekintzak.</li> </ol>	<p><b>12</b></p> <p><b>11</b></p> <p><b>1</b></p> <p><b>1</b></p>	<p><b>1. INCORPORACIÓN A LA RED FERROVIARIA EUROPEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Financiación de los proyectos constructivos, direcciones facultativas de las obras y colaboración con la Administración Central en la gestión administrativa de los expedientes expropiatorios correspondientes al ramal guipuzcoano de la Nueva Red Ferroviaria en el País Vasco.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Proyectos constructivos de la Nueva Red Ferroviaria del País Vasco.</li> <li>Dirección de obras.</li> <li>Gestión expropiatoria.</li> <li>Acciones de socialización</li> </ol>

<b>PROGRAMA</b>	<b>PROGRAMA</b>
5135 EAE-KO TRENBIDE SARE BERRIA- KUDEAKETARAKO KREDITOAK	5135 NUEVA RED FERROVIARIA EN LA CAE- CRÉDITOS DE GESTIÓN
<b>ARDURADUNA</b>	<b>RESPONSABLE</b>
<u>06 ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIOAK</u>	<u>06 VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES</u>
GARRAIO AZPIEGITURAREN ZUZENDARIA	DIRECTOR DE INFRAESTRUCTURA DEL TRANSPORTE

**MEMORIA**

Aurrekontu-programa honek euskal trenbide-sare berriaren Bergara-Irun tarte eta Donostiako sarbidea eraikitzekeo gastuak jasotzen ditu, eta gastu horiek gero kupotik kenduko dira. Hori egiteko kontuan izan da Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren Xedapen Gehigarrietan Laugarrenak ezartzen duena; hau da, Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko inbertsioak elkarrekin finantzatzea erabaki dezaketela, baldin eta inbertsio horien zenbatekoagatik, balio estrategikoagatik, interes orokorragatik, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko beste lurralde batzuetan ere eragiteagatik edo-eta bestelako inguruabar bereziengatik, finantzaketa mota hori komeni bada; eta halakoetan, ekarpenak kasuan-kasuan erabakitzen den eran eragingo duela kupoan.

